

**EUSKARA EGITASMOAK ELKARLANEAN EMATEKO HITZARMENA;  
ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA ETA  
USURBILGO UDALEK IZENPETUA**

Andoainen, 2002ko martxoaren 14an.

***BILDURIK***

- **Jose Antonio Barandiaran Ezama jn.**, 15.895.534 zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Andoingo Udalaren izenean**, Gobernu Batzordeak, 2001eko abenduaren 27an egindako bileran espreski ahalmendurik.
- **Eli Laburu Labaka and.**, 15.933.278 zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Astigarragako Udalaren izenean**, Udalbatzak 2001eko abenduaren 27an egindako bileran espreski ahalmendurik.
- **Mertxe Etxeberria Aranburu and.**, 15.158.828 zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Hernaniko Udalaren izenean**, Gobernu Batzordeak 2002ko urtarrilaren 30ean egindako bileran espreski ahalmendurik.
- **Julio Legaz Heras jn.**, 14.992.051 zenbakidun NAN duena, alkateordea, **Lasarte-Oriako Udalaren izenean**, Gobernu Batzordeak 2002ko urtarrilaren 28an egindako bileran espreski ahalmendurik.
- **Florentino Ugalde Atxaga jn.**, 72.421.043 zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Urnietako Udalaren izenean**, Gobernu Batzordeak 2002ko martxoaren 12an egindako bileran espreski ahalmendurik.
- **Jose Antonio Altuna Aizpurua jn.**, 15.113.125 zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Usurbilgo Udalaren izenean**, Udalbatzak 2001eko abenduaren 28an egindako bileran espreski ahalmendurik.

Hitzarmen egintza honen fede emateko **Jose Maraña Sanchez** jauna bertaratu da, **Andoingo Udaleko Idazkari** dena.

Agerturiko guztiek adierazten dute arlo honetan indarrean dauden xedapenek zehazten dituzten bateraezintasun eta ezgaitasun kausetariko ezeinetan ez daudela sarturik eta aitortzen dute Elkarlan Hitzarmen hau egilesteko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa dutela, eta eragin horretarako,

## ***ADIERAZTEN DUTE:***

1.- "Buruntzaldea" eskualdeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen helburuetako bat da, besteak beste, udalerrri horietan euskararen normalizaziorako zenbait egitasmo elkarren artean bideratzea.

2.- Udalerrri bakoitzak antzeko egitasmoak ditu martxan hainbat arlotan, non bere bitartekoak erabiliz prestatuak. Udalerrrien arteko lankidetzak hain bitarteko, egitasmoak eskualde mailara zabaldua aberatsagoak eta sendoagoak izango dira, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere.

3.- Badaude, bestalde, udalerriaz gaildakiko gaiak ere, udal batek bakarrik eragin ezin dituen arlo edota sektoreak. Horregatik, ekimen horiek Buruntzaldeko izaera dutenez, eskualdeko esku hartzea bideratuko dute udalek hitzarmen honen bitartez.

4.- Elkarlanak, edozein modutara, errespetatu egin behar du udalen autonomia. Horregatik, hitzarmen honetan parte diren udalek aukera izango dute egitasmo bateratu hauek, egokiago ikusiz gero, beren udalerrira egokitzeko, edota egitasmoren batean parte ez hartzeko. Kontuan hartu behar baita egoera soziolinguistikoak, herrien tamainak eta hizkuntza normalizazioan egindako ibilbideak anitzak direla.

Horregatik guztiatik erabaki dute lehenago esandako udalerrietako udalek beren artean elkarlanean jardutea eta, horretarako, beren arteko harremanak arautzen dituen administrazioko hitzarmen hau izenpetzea, ondorengo klausula hauei loturik:

## ***KLAUSULAK:***

### **BAT.- Xedea eta Egitasmoak.**

1.1. Elkarlanerako administrazio-hitzarmen honen xedea, euskararen hizkuntza normalizazioaren aldeko egitasmoak bideratzeko, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen arteko harremanak arautzea da.

1.2. Hitzarmen hau izenpetzen duten sei udalerrietako egoera soziolinguistikoak nahiz demografikoak anitzak izanda ere, badira, hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, denontzako lehentasunezkoak izan daitezkeen hainbat jarduera-esparru eta horietan jardungo dugu. Honako hauek dira jarduera-esparruok:

Familia eta irakaskuntza (hizkuntzaren transmisioan edo ondorengoetaratzean eragiteko), kirola (aparteko hitzarmena dugu "kirola euskaraz" egitasmoren inguruan), aisialdia, merkataritza eta udal barneko euskara planak (hizkuntzaren erabileran eragiteko).

1.3. Jarduera-esparruak nahiz egitasmo zehatzak aldagarriak izan daitezke helburuak betetzen edota jarduera-esparru berriak lantzen doazen neurrian. Horregatik, urtean

urteko egitasmoak biltzen dituen proposamena eta aurrekontua prestatuko dute udalerrri guztietako teknikariek, baita aurreko ikasturteko memoria ere, *ekainaren 30a baino lehen*, eta nork bere udalean aurkeztuko du *irailaren 30a baino lehen* onetsia izan dadin. Egitasmo eta aurrekontuarekin batera, lan eta ardura banaketarako proposamena ere aurkeztuko da, udalerrri bakoitzak aurrez jakin dezan zein egitasmo kudeatzeko ardura egokitzen zaion.

## **BI.- Finantzatzeko era.**

2.1. Egitasmoak hainbana finantzatzeko dira udal parte-hartzaileen artean, kontuan hartuta udalek autonomia osoa dutela zein egitasmotan parte hartu erabakitzeke.

2.2. Nolanahi ere, herri osoan banatzeko materialen bat argitaratu behar delarik, biztanle kopuruaren arabera ordainduko ditu argitalpen-gastuak udal bakoitzak.

2.3. Egitasmo bateratu hauek eragin ditzaketen diru-sarrerak ere gastuen proportzio berean banatuko dira udal parte-hartzaileen artean.

## **HIRU.- Egitasmoaren jarraipena.**

3.1. Egitasmoaren jarraipen teknikoa egitea euskarako teknikarien eginbeharra izango da eta horretarako elkartuko dira behar hainbatean.

3.2. Ardura politikoari dagokionez, ikasturterako egitasmoa onartzen delarik, ikasturte horretarako ardura zein herrik hartuko duen ere erabakiko da. Ardura hau txandakakoa izango da, urtero berrituko dena. Arduradun politiko hori izango da, hain zuzen ere, euskarako teknikarien solaskidea.

## **LAU.- Hitzarmenaren iraupena.**

Hitzarmen honek 2002ko ekainaren azken egunera arte iraungo du, eta epe hori urteka luzatuko da, besterik gabe, non eta hitzarmena izenpetu duten erakundeetarikoren batek hura salatzen ez duen, gutxienez bi hilabete lehenagotik.

Eta bere adostasunaren adierazgarri, honako agiriaren seinan ale izenpetzen dituzte, idazpuruan seinalatutako lekuan eta egunean.

**Andoaingo Udala**

**Astigarragako Udala**

**Hernaniko Udala**

**Lasarte-Oriako Udala**

**Urnietako Udala**

**Usurbilgo Udala**

**Andoaingo Udaleko Idazkaria**